

M.A.R.E.A. KANALAK



Komunikazio-kanalak:

Gure bezeroek, batez ere udalerrri kosteroek eta ingurumenaren aldeko elkarteek, informazioa jasotzeko eta gure produktua ezagutzeko aukera izango dute honako komunikazio-kanal desberdinen bidez:

TELEBISTA:

Telebistan iragarki eta erreportaje bereziak egingo ditugu, gure produktua erakusteko eta ahalik eta jende gehienara iristeko. Gainera, robotaren onurak ingurumenari eta funtzionamendu erraza azalduko ditugu. Helburua da gure enpresa ezagutaraztea eta gure proposamena zabaltzea: hondartzak garbi mantentzea eta ekosistemak babestea.

WEB ORRIALDEA:

Gure webgune ofizialean (www.marea.com) produktuari buruzko informazio guztia eskainiko dugu: ezaugarri teknikoak, funtzionamendua, bideo demostratuak eta prezioei buruzko informazioa.

Gainera, bezeroek gurekin harremanetan jarri ahal izango dute, zalantzarik badute edo informazio gehiago edo aurrekontu pertsonalizatuak behar badituzte. Gure webgunea baliatuko dugu eskaerak jasotzeko eta crowdfunding kanpainak kudeatzeko modu eraginkorrean, bezero eta kolaboratzaile gehiago erakartzeko.


AURREZ AURRE:

Bezeroekin kontaktu zuzena izango dugu. Aurkezpenak eta erakustaldi praktikoak egingo ditugu udalerrri kosteroetan eta ingurumen-elkarteetan. Horrela, bezeroek produktua bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute eta zalantzak aurrez aurre argitu ahal izango dituzte. Telefonoa eta posta elektronikoa:

Webgunean kontaktu azkar eta eroso eskaintzen dugu. Horrela, bezeroek deitu edo idatzi ahal izango digute, galdera teknikoak argitzeko, informazioa jasotzeko edo erakustaldiak eskatzeko.

Posta elektronikoa: @marea.gmail.com

Telefonoa: 688 456 239



Banaketa-kanalak:

Gure robot M.A.R.E.A. bezeroengana eramateko, honako kanalak erabiliko ditugu:



SALMENTA PRESENTZIALA:

Robotak Suministros Bilbao bezalako denda fisikoetan eros daitezke. Kanal honek aukera ematen du produktuari buruzko informazio zuzena jasotzeko, sortzen diren zalantzak argitzeko eta erabiltzeko aholkuak emateko.

BIDALKETAK ETXERA:

Bezeroaren instalazioetara entregak zuzenean egin ditzakegu, batez ere udalerri, erakunde publiko eta ingurumen-elkarteentzat. Entregak bilgarri seguruarekin egingo dira eta eskaeratik hasi eta eroslearen eskuetan iritsi arte jarraipen osoa bermatuko da.

ERAKUSTALDI PRAKTIKOAK:

Aurkezpenak antolatuko ditugu udalerri kosteroetan eta ekosistemen aldeko erakundeetan, robotaren funtzionamendua erakutsiz. Horrek aukera emango die bezeroei produktuaren eraginkortasuna egiaztatzeko eta bere erabilgarritasuna ulertzeko, erosketa egiteko ziur ez daudenean.

